



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

DURANGOKO UDAL AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK 2020

2020ko otsaila

AURKIBIDEA

0. SARRERA	3
1. HELBURUAK ETA ANTOLAKETA	4
1.1. HELBURUAK	5
1.2. PARTE HARTZAILEAK	6
1.3. LAN FASEAK	7
1.3.1. PROZESUAREN ANTOLAKETA ETA KOMUNIKAZIOA	7
1.3.2. BOZKETA FASEA	9
1.3.3. AZKEN ERABAKIA ETA BALORAZIOA	10
1.4. KRONOGRAMA	11
1.5. KOMUNIKAZIOA	12
2. PROZESUAREN EMAITZA.....	13
2.1. BOZKETA DATUTAN	15
3. PROZESUAREN BALORAZIOAK	17
4. ONDORIO BATZUK	18

0. SARRERA

Jarraian aurkezten den txostenak "Durangoko Partaidetzazko Aurrekontuak 2020" prozesuaren (nondik norakoak) ezaugarriak biltzen ditu. 2019ko azaroa- 2020ko urtarrila bitartean, Durangoko Udalak partaidetzazko aurrekontuen prozesua burutu du, herritarren erabakiaren esku (utziaz)utziz Udal Aurrekontuaren 600.000€.

Partaidetzazko Aurrekontuak herritarrek udal politika publikoetan parte hartu eta eragiteko tresna garrantzitsua dira, eta bertan herritarren behar eta hobekuntza proposamenak zuzenean landu eta jorratzen (direlarik.)dira.

Aurtengoa, Durangoko udalak partaidetzazko aurrekontuak burutu dituen lehenengo urtea izan da.

Argitu behar da prozesu honekin bilatzen zena, herritarrek udal aurrekontuaren zati batean erabakitzeko aukera izatea da. Kasu honetan, udal gobernua izan da aurrekontuan txertatzeko proposamenak sortu dituen

"Durangoko Partaidetzazko Aurrekontuak 2020" izan da kanpo aholkularitzaren bitartez landu den lehenengo aldia, eta Udalak, Aztiker Soziologia Ikergunearen aholkularitzarekin garatu du.

Txosten honek, prozesuan emandako urrats eta erabakiak biltzen ditu urratsez urrats, eta era sintetiko batean, prozesuaren xehetasunen berri ematea da bere helburua.

Maila honetako proiektu bat egiteko, Durangoko Udaleko arduradun eta teknikarien lan eta esfortzua ezinbestekoa izan da, eta sarrera honetan, egindako lan hori balioan jarri nahi da.

Herritarren kezka, zalantza eta proposamen ugari jaso dira prozesu honetan politika publiko desberdinen inguruan, egun abian daudenak Durangon edota inbertsio eta proposamen berriak izan daitezkeenak.

Ekarpen hauek prozesua elikatu dute, eta balio erantsi bat eskaini diote. Hori dela eta, eskerrak eman nahi zaizkie modu baten edo bestean prozesuaren parte izan diren herritar guztiei.

1. HELBURUAK ETA ANTOLAKETA

Atal honek, lehenik prozesuan landutako helburuak, gero, parte hartu duten agente desberdinen papera, eta azkenik honen antolaketaren inguruko eskema orokor bat biltzen ditu.

Eskemak, prozesua bere osotasunean irudikatzea du helburu, hurrengo ataletan zehar bertan laburbildutako fase bakoitzaren zehaztapena ulertzeko.



1.1. HELBURUAK

Durangon garatu den proiektuak jarraian datozen helburuak izan ditu:

HELBURU OROKORRA:

Durangoko Udalaren 2019ko aurrekontuen atal zehatz bat **herritarrekin batera eztabaidatu eta erabakitzea**.

HELBURU ZEHATZAK:

- Durangoko udal diru publikoa eta herri interes orokorraren uztarketaren inguruko gogoeta burutzea
- Udal ordezkari politikoekin batera, herritarrek auzokako edo lurraldearen araberako egoera eta beharrianak identifikatzea.
- Herritarrak gogoeta eta beharren identifikazioarekin batera lan komunitarioa balioan jarri eta herri ikuspegia sozializatzea.

ZEHARKAKO HELBURUAK:

Zeharkako helburuei dagokionez, ondoren zerrendatzen direnak izango dira prozesuan zehar (gertatzea)lortu nahi direnak bilatuko direnak:

- Erakunde publiko eta herritarren artean elkarlan eta parte-hartze kultura indartzea.
- Herritarrak eta udal administrazioaren arteko zubi lanak eraikitzea.
- Partaide bakoitzaren eta denen berdintasuna eta garrantzia indartzea: edozein dela herrian duen rola, funtzioa, ardura; edozein dela duen generoa; edozein dela ordezkatzeko duen subjektua, e.a.
- Talde lanerako espazioak sortuz, eragile eta pertsona bakoitzaren interesen ikuspegi zehatzetik, eta auziaren inguruko ikuspegi desberdinak mahai gaineratuz, talde/komunitate ikuspegia lantzea.
- Kultura politikoaren eraldaketa sustatzea, norberaren ikuspegi eta bizipen indibidualetatik abiatuta ikuspegi komunitarioaren sorkuntzan urratsak ematea.

1.2. PARTE HARTZAILEAK

Prozesua egikaritu ahal izateko, herritar, udal ordezkarien lanketa ezinbestekoak izan dira; atal honetan bakoitzak izandako papera azaltzen da.

UDAL ORDEZKARI POLITIKOAK

Prozesuaren hasieratik Aztiker eta udal ordezkari politikoen arteko KOORDINAZIO TALDEA osatu da.

Bilera hauetan modu iraunkorren Iker Urkiza eta Jorge Varela zinegotziek eta Arkaitz Martinez de Albeniz, Aztikerreko teknikariak, prozesuaren jarraipen eta antolaketa lanak egiteko gune iraunkorra sortu dute.

Langune honetan, aldiro, Maitane Barrenetxea, Aztikerreko teknikariak ere parte hartu du.

Honetaz gain, abenduaren 11an ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATIBOAN prozesuaren aurkezpena burutu zen, eta bertan ordezkari politikoen zalantza eta ekarpenak jaso ziren.

HERRITARRAK

Herritarrak izan dira prozesuaren protagonistak (Herritarren parte-hartzea izan da benetako protagonista.) Beraiek izan dira prozesua ekarpen eta bozkekin elikatu dutenak.

Prozesuaren 2.fasea zabaltzearekin batera, Bozketa fasea, lau aurkezpen bilera egin dira herritarrekin Durango lau auzo edo gune desberdinetan.


Honekin batera, abenduaren 27an eta abenduaren 29an herriko lau guneetan "stand" informatibo jarri ziren, herritarrei prozesua azaldu eta bertan parte hartzeko gonbitea eginez.

Fase honetan zehar, abenduaren 16tik urtarrilaren 3ra bitartean luzatu zena, 2917 durangarrek parte hartu dute bozketan.



1.3. LAN FASEAK

Prozesuak izandako lan fase desberdinak eta hauek garatzeko erabilitako kronograma ageri dira jarraian, gero lan fase bakoitzeko zehaztasunak emateko.



1.3.1. PROZESUAREN ANTOLAKETA ETA KOMUNIKAZIOA

Azaroan zehar Durangoko udal ordezkariak eta Aztikerreko teknikarien artean aurrekontu parte hartzaileen inguruko prozesua antolatzeko (lanetan ibili ginen) lanak burutu dira, prozesuaren ezaugarriak zehaztu eta prozesuaren abiatzea prestatzeko egitekoak banatzen.

❖ Konpromiso politikoa

Udal gobernu taldeak honako konpromisoak hatu zituen prozesu honen inguruan:

- 16urtetik gorako herritarrek izango dute bozka emateko aukera
- Proposamenen zerrenda gobernu taldeak erabakiko du, orain arte herritarren eskaerak izan direnen artean hautatuta
- Udal gobernuak teknikoki bideragarriak izango diren proiektuak hautatuko ditu
- Prozesu honetatik aterako den emaitza errespetatu eta 2020ko udal aurrekontuetan txertatzeko bermea eskainiko du
- 2020ko udal aurrekontuaren 600.000€ herritarrek erabakitzea

❖ Prozesuaren egitura


Koordinazio taldean prozesuak izango zuen (egituraren erabakia hartu zen) egitura erabaki zen.

Aztiker Ikergunearen proposamena findu eta hainbat ekarpen egin ostean, prozesuaren egiturak hiru fase nagusi izango zituela adostu genuen:

- Konpromiso politikoaren zehaztapena eta komunikazio estrategia zehaztu
- Parte hartze eta bozketa fasea
- Emaidza eta balorazioa

❖ Komunikazio planaren diseinua

Herritarrei prozesuaren berri eman eta parte hartzeko deialdia egiteko hainbat euskarri desberdin prestatu ziren, plangintza komunikatiboaren baitan. Hauek dira prestatutako euskarriak:



GALDETEGIA

PROPOSAMENEN BUDGETA

1. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte, astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte, astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...

PROPOSAMENEN BUDGETA	1	2
1. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
2. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
3. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
4. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
5. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
6. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
7. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
8. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
9. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
10. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
11. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
12. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
13. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
14. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
15. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
16. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
17. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
18. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
19. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000
20. Astelehenetik 10:00etan hasieratik 10:00etan bukatu arte...	10000	10000

1.3.2. BOZKETA FASEA

❖ Saio irekiak

Bozketa egiteko fasearen hasiera egunean prozesuaren aurkezpen saioei hasiera eman genion.

Saio hauetan prozesuaren aurkezpena egin genuen eta udal ordezkari eta herritarren arteko komunikazio bide bat zabaldu zen.

Saioetako hauetako helburuak honakoak ziren:

1. Prozesuaren aurkezpena egin
2. Proposamenen aurkezpena egin
3. Galderak, zalantzak eta ekarpenak egiteko tarte zabaldu
4. Proposamenen bozketa egin

2020 AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK - PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS 2020

PROPUESTAS



8. Ampliar la partida, en el importe indicado, para la mejora de iluminación en calles, puntos negros, pasos de cebrá y mejora de cuadros eléctricos para evitar apagones

100.000€

En el Presupuesto 2020
251.000€ incluidos



❖ Stand informatiboak

Abenduaren 23a eta abenduaren 27an prozesuaren inguruko informazioa eskaini eta herritarrei bozkatzeko aukera zuzena eskaintzeko herriko gunek desberdinetan panel informatiboak eta bozka paperekin egon ginen.

Herriko gunek hauetan jarri genituen informazio eta bozka gunek:

- Izotz pista
- Landako II
- Liburutegia
- Andra Mari elizako arkupeak



❖ Herritarrek bozkatu

Bozkatzeko hiru bide desberdin egon dira:

PAPEREAN	Proposamenak egiteko galdetegia bete eta Udaletxea (HAZ), Landako II (kiroldegia) eta liburutegian jarritako postontzietan sartuta.
INTERNET	Interneten ere proposamenak egiteko aukera luzatu da, honako helbide honetan jarritako formularioa beteta: https://www.parteheartu.durango.eus Formularioaren egitura, paperean erabilitakoaren berdina izan da.
SAIO IREKIAK	4 saio ireki antolatu dira auzoetan prozesuaren berri eman eta herritarrek proposamenak zuzenean ezagutu ahal izateko. Hauek izan dira saio irekietako datak eta lekuak:

EGUNA	ORDUA	TOKIA
Abenduak 16, astelehena	19:00etan	Elkartegin
Abenduak 17, asteartea	19:00etan	San Faustoko elizan
Abenduak 19, osteguna	19:00etan	Zabalarra eskolan
Abenduak 20, ostirala	19:00etan	Udaletxean

1.3.3. AZKEN ERABAKIA ETA BALORAZIOA

Urtarrilaren 3an amaitu zen bozkatzeko epea.

Urtarrilaren 7an datuak ustiatu ditugu, eta emaitzaren zerrenda erabaki da; eta aurkezpen publiko bat burutu da.

Honekin udal aurrekontuetan txertatzeko prozedura zabaldu da.

❖ Zenbaketa

Urtarrilaren 7 eta 8an www.parteheartu.durango.eus webguneko bozketarako programak bildutako datuak jaso ditugu, eta hauek ustiatu.

Behin datuak izanda, prozesuko emaitzak eskaintzeko aldagai desberdinak (jaiolekua, adina, sexua, bozkatzeko bitartekoa) aztertu ditugu, emaitza lortzeko.

❖ Emaitzen aurkezpena

Emaitzen aurkezpen publikoa egiteko prentsaurrekoa eskaini zuten udal ordezkariak, Aztikerreko teknikariarekin batera.

❖ Emaitzak udal aurrekontuetan txertatzea


Urtarrilaren 29an Durangoko Udaltzatzen prozesu honetan sortutako emaitza 2020ko udal aurrekontuetan txertatzea onartu zen.

❖ Balorazioa

Prozesua baloratzeko Koordinazio Taldeko bilera egin zen, eta hainbat ondorio jaso.

1.4. KRONOGRAMA

Hiru hilabetetan zehar garatu dugun partaidetzazko prozesu honetan emandako urrats bakoitzaren denboralizazioa aurkezten dugu.



1.5. KOMUNIKAZIOA

Hurrengo koadroan prozesuan zehar erabilitako euskarri komunikatiboen erabilera zehazten da:

EUSKARRIA	ERABILERA
PRENTSAURREKOAK	Prentsa idatziaren bidez prozesuaren inguruko xehetasunak herritarrei helarazi zaizkie: <ul style="list-style-type: none"> - Prozesuaren hasieran prentsaurrekoa eskaini genuen prozesuaren berri eman eta herritarrei parte hartzera deialdia egiten - Behin bozketaren zenbaketa eginda, prozesuaren emaitza komunikatzeko prentsaurrekoa egin genuen
WEBGUNEAK	<ul style="list-style-type: none"> - www.parteheartu.durango.eus webgunean prozesuaren lan faseen inguruko informazioa bozkatzeko aukera egon da. - Bertan ere herritarrek bozkatzeko aukera izan dute.
INFORMAZIO TRIPTIKOA	Bozketa fasea hasi aurreko egunetan herriko etxe guztietako buzoietan herritarrek prozesuaren informazioa eskaintzen zuen triptikoa eta bozkatzeko papeleta banatu ziren.
BANDOA	Herriko etxe guztietako atarietan bozketa fasean parte hartzeko bandoak jarri dira.
KARTELA	Herriko gune desberdinetan saio irekietako deialdien kartelak jarri dira.
PANELAK	Egin diren agerraldi publiko, lan saio eta dinamika parte hartzaileetan prozesuaren informazioa eskaintzen zuten panelak erabili dira.
SARE SOZIALAK	Saioen inguruko informazioa eskaintzeko erabili dira, eta bozka kopuruen informazio eguneratua eskaintzeko.
UDAL INFORMAZIO GUNEAK	Udalak dituen 10 Herritarren Informazio Puntuetan (HIP) prozesuaren deialdien berri eman da.
ELKARTEGINTZA	Auzo elkarteei saio irekietan parte hartzeko deialdia egin zitzaizen, dei telefonikoen bitartez.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

2020 Aurrekontu partehartzaileak

Durangoko Udalak partaidetzako aurrekontuen prozesua abiatu du herritarrok 2020ko udal aurrekontuan barneratzeko proposamenak erabakitzeko.

ZER?

Udalak 14 proposamen aurkeztu ditu, eta Durangon erroldatutako 16 urtetik gorako durangar guztiak beharrezkoen ikusten dituzuen 3 proposamen hautatzeko aukera izango duzue.

NORTZUK?

Durangon erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek

NOLA?

Bilera irekialdi	EGUNA	ORDUA	LEKUA
Lau bilera egongo dira, proposatu ondoren eta proposamenak aurkeztu ondoren.	Abituak 16	19:00	Etxarlegi
	Abituak 17	19:00	San Faustino Eliza
	Abituak 18	19:00	Zabalera Eskola
	Abituak 20	12:00	Udalbako pleno aretoa



Postontziak

Lehiak emaketa eta lehiaketa proposamenak zuzenean aurkeztu eta bozkatzeko.

Liburutegian

Udalak zuzenean aurkeztu eta bozkatzeko.



Internet

www.durango.eus atariaren bitartez bozkatzeko aukera egongo da.

Informazio guztia www.durango.eus atarian egongo da, eta zalantzak argitzeko parteheartu@durango.eus helbidera idatzi dezakezue.

**DURANGO HOBEAGO BAT ERAIKI
AURREKONTU PARTE HARTZAILEEN BITARTEZ**

2. PROZESUAREN EMAITZA

Bozketa epea amaitu denean galdetegi guztien **ustiaketa** egin da eta lortutako **emaitzak** ordezkari politikoei aurkeztu zaizkie **azken erabakia** hartzeko.

Urtarrilaren 7 eta 8an astean Aztikerreko teknikariek galdetegien ustiaketa egin dute. Webgunek ematen zuen aukerari esker, 16tik gorako Durangon erroldatutako herritarren bozkak baino ez dira jaso, tarte horretan sartzen ez diren herritarrei bozkatzeko aukera ez baitzien programak eskaintzen.

Urtarrilaren 8an ordezkari politikoekin egindako bileran hartu da azken erabakia.

Jarraian aurkezten den koadroan biltzen dira proposamen bakoitzak jaso dituen bozka kopuruak, kopuru altuenetik baxuenera antolatuta, portzentaia, proposamen bakoitzaren aurrekontua, eta aurrekontu metatua.

Udal gobernu taldeak herritarrek 600.000€ erabakitzeko konpromisoa hartu zuen prozesuaren hasieran.

Hurrengo taulan bozka kopuruaren zenbaketa arabera 13. eta 14. postuan gelditzen diren proposamenak udal aurrekontuetan ez txertatzea erabaki da, 600.000€ko kopurua gaindituko zuelako. Zerrendan 15. eta 16. postuan ageri direnak, zerrendako azkenak izanda, boto kopuru baxua dutela ikusita, ez dira 600.000€en kopuruan sartu, eta aukerarik egokiena 12. Proposamenean etetea dela baloratu dute udal ordezkari eta Aztikerreko teknikariek osatzen duten Koordinazio Taldeak.

PROPOSAMENA	BOTOAK	%	AURREKONTUA	AURREKONTU METATUA
Herriko kale, puntu beltz eta zebra-bideen argiteria eta itzalaldiak ekiditeko kuadro elektrikoek diru-partidarako ezarritako kopurua handitu	2177	75,2	100.000 €	
Herriko haur parke eta kulunkak hobetu	869	30,0	100.000 €	200.000 €
Zuhaitz landaketarako kanpaina burutu	859	29,7	25.000 €	225.000 €
Tadu enpresa zaharreko lursailetan, Gernikako Arbola biribilgunearen ondoan, disuasio-parking berria eraiki	662	22,9	162.000 €	387.000 €
Etxebizitzan alokairurako dirulaguntzetan ezarritako kopurua handitu	623	21,5	25.000 €	412.000 €
Ibaizabal parkean pertsona guztientzako hiri barruko kirol eta entrenamendurako Calistenia parkea sortu	559	19,3	30.000 €	442.000 €
Adinekoen etxebizitzetan ke detektagailuak instalatzeko diru-partida handitu (programako adina 75 urtera jaitsita bakarrik bizi direnen kasuan eta 80 urtera bikoteen kasuan)	519	17,9	10.000 €	452.000 €
Arnasten dugun airearen kalitatearen inguruko informazio panela instalatu	502	17,3	30.000 €	482.000 €
Hiri baratzeak sortzeko diseinurako proiektua burutu	484	16,7	20.000 €	502.000 €
San Faustoko jaietako ekitaldi eta kontzertuetarako diru-partidarako ezarritako kopurua handitu	351	12,1	40.000 €	542.000 €
BBT bizikletak garbitzeko postu berri bat instalatu	225	7,8	20.000 €	562.000 €
Herritarren partaidetza sustatzeko webgunea sortu	211	7,3	12.000 €	574.000 €
Aldagela berriak eraiki Tabira polikiroldegian, igerileku eta kirol kantxei zerbitzua eskaintzeko	154	5,3	300.000 €	
Udalaren webgunea berritu; erakargarri, eskuragarri, arin eta praktikoagoa	153	5,3	35.000 €	
LANDAKO I-eko boulderra handitzeko lanak burutu, instalazio osoagoak eskaintzeko	138	4,8	15.000 €	
Mikeldi idoloa berreskuratzeko lanak egin	60	2,1	10.000 €	

2.1. BOZKETA DATUTAN


Aurretik aipatu den bezala, bozkatzeko ezinbestekoa izan da NAN edota identifikazio zenbakia jartzea, datuak Udal errolda anonimoarekin kontrastatu eta pertsona bakoitzak behin bakarrik bozkatu duela bermatu ahal izateko. Ondorioz, zenbait boto baliogabetu dira honako arrazoiak direla eta:

- ❖ **2917 boto emaile** (835 buzoiak / 2060 online)
 - **Baliozkoak: 2895** (16 urtetik gorako populazioaren %11,3)
 - **Baliogabeak:**
 - 9 eskuorritan NANA ez zegoen idatzita.
 - 3 proposamen baino gehiago bozkatu duten 2 pertsona egon dira.
Adin txikiko 3 herritarrek eman duten bozka
 - Behin baino gehiagotan bozkatu duten pertsonak 3 izan dira.
 - Durangon 5 bozka emaile ez zeuden erroldatuta.

Jarraian, bozken inguruko datu desberdinak ageri dira:


Buzoietan 835 boto jaso dira, eta Internet bidez 2060. Online bozka nabarmen altuagoa dela ikus dezakegu datu honekin.

MODUAREN ARABERA



Generoari dagokionez, emakume gehiagok (1547) bozkatu dute gizonezkoek (1348) baino:


SEXUAREN ARABERA



ADIN TARTEAREN ARABERA

Adinari erreparatuta, 36-45 urte bitartekoa izan da bozka gehien emandako adin tartea.

Adina	kopurua
16-29	663
30-49	1314
50-64	661
65etik gora	257



■ 16-29 urte ■ 30-49 urte ■ 50-64 urte ■ 65+ urte

Adin tarte bakoitzak osatzen duen populazioaren ehuneko zenbatekoak bozkatu duen agertzen da jarraian. Esanguratsua da portzentualki gehien bozkatu dutenak gazteak (16-29 urte bitartekoak)

Adina	Bozkatzaile kopurua	Bozken %	Adin horretako populazio osoko %
16-29	663	%22,9	%15,7
30-49	1314	%45,4	%15,0
50-64	661	%22,8	%9,5
65etik gora	257	%8,9	%4,5

Interneteko bozkari begiratzan badiogu, ikus daiteke adin tarte guztietan bozkatu dela paperean baino.

Adinean gora joan ahala, erabilera murrizten, nahiz eta adin tarteen arteko jauzi handiegirik ez diguten datuek erakusten.

Adina	Online bozken %
16-29	%77,7
30-49	%74,8
50-64	%65,1
+65	%51,4

3. PROZESUAREN BALORAZIOAK

Aurrekontu partehartzaileen prozesua bukatutzat eman aurretik, ordezkari politikoekin prozesuaren inguruko balorazioa egiteko bileran honako ondorio eta hausnarketak jaso ziren:

Prozesuaren alde arrakastatsuak identifikatu dituzte:

- Orokorrean prozesuaren balorazio positiboa egin da.
- Jendeak izan duen partehartzeko gogoia islatu du emaitzak.
- Saioak auzo eta orohar herritarren beharren inguruko informazioa jasotzeko egokia izan da; nahiz eta jasotako ekarpen gehienak ezagutu.
- Proposamenei dagokionez, aurrekontu igoera proposatzen zuten proposamenak ez dira jendearentzat argiak izan; informazio hori hobeto helarazi daiteke.
- Webguneko bozketa mekanismoa fidagarria izan da, eta ondo funtzionatu du.
- Stand informatiboak herritarrek prozesura gerturatzeko bitarteko egokiak izan dira.

Aurrera begira egon daitezkeen hobetzeko neurrien artean honakoak adierazten dituzte:

- Epeak oso estuak izan dira; hurrengo urterako asmoa aurrekontu parte hartzaileen prozesuarekin martxoan hasia izan beharko luke.
- Aurrekontuen inguruko informazio orokorra gehiago garatzeak merezi duela uste dute.
- Elkartegiko saioak erantzun ona izan zuen herritarren partetik; hurrengoetarako, agian, saioak horrenbeste "dispertsatu" beharrean, bertan zentralizatu daitezke.
- Hurrengo urteei begira, gune interesgarri batzuk identifikatu dira, bertan biltzen den jende kopurua dela eta: igerilekua, Hizkuntza eskola, Zaharren egoitza, musika eskola...

4. ONDORIO BATZUK

Hasteko, ordezkari politikoek aurrekontu partehartzaileen prozesuan hartutako erabakiak 2020ko Udal Aurrekontuan txertatu dira, eta hori da prozesu honek uzten lehenengo emaitza. Prozesuaren hasieran ezarritako baldintza eta bermea izan zen hau.

Prozesu honen ezaugarri bat, izan duen iraupen mugatua izan da. Honek prozesuaren diseinua erabat baldintzatu du. Honen ondorioz herritarrek bozkatu dituzten proposamenak udal gobernu taldeak osatutako proposamenen zerrenda izan da, prozesuaren denbora mugek beste modu batean planteatzeak sortzen zituen zailtasunengatik.

Beste ondorio bat, bozkatzeko aukera zuten herritarren %11,3k parte hartu dutela da. Durangon aurrekontu parte hartzaileen prozesua burutzen den lehenengo aldia izan da, eta, emaitza hauek herritarrek udal politiketan parte hartzeko duten gogoia adierazten digute.

Aurrera begira, prozesuaren izaera eta diseinuari dagokionez, dinamika parte hartzaile bizi bat sortzeko aurrekontu parte hartzaileen dinamikaren inguruan herritarrek prozesuaren antolaketa eta jarraipenean jokatu beharreko paper protagonista kontutan izan behar da. Alde batetik prozesuaren jarraipen eta gidaritza lanak egingo dituen herritar taldea sortuz, eta, bestalde, bozkatuak izango diren proposamenak sortu eta osatzeko aukera eskainiz.

Hurrengo urteei begira, prozesuak udal osoaren konpromiso eta hauspoa izateko udalbatza osoaren sostengua bilatzea garrantzitsua izango da; alderdi bakoitzaren programatik haratago aurrekontu parte hartzaileek berekin dakarten kudeaketa publikoaren lan filosofia alderdi politiko guztiek bere egin eta elikatu dezaten.

Hainbat kritika ere jaso ditu prozesuak, aintzat hartu beharrekoak. Proposamenen zerrenda itxita egoteak, gobernu taldearen programa nolabait defendatu eta legitimatzeko ariketa izan dela baloratu dute batzuek; honen atzean herritarrei bozkatuak izango diren proposamenak sortzen eta osatzeko aukera eskaini behar dela argudiatuta.

Ondorioen artean, sortutako webgunean erabilitako programa eta prozedura emaitzaren ustiaketa lanak asko erraztu dituela esatea tokatzen zaigu. Programa fidagarria izan da, udal erroldarekin binkulatuta egon den heinean; modu honetan, programak berak udal erroldan 16 urtetik gora agertzen ez ziren herritarrei bozkatzeko aukera eskaini ez dielako.